

INFORMAZIOA GIZARTE LANGINTZAKO IKASLEENTZAT 2024-2025 IKASTURTEA

Arabako ataleko dekanotza taldearen partaide bezala, gizarte langintzako titulazioa osatzen dugun ikasle, irakasle eta Teknikariak eta Kudeaketako eta Administrazio eta Zerbitzuetako Langileak (TEKAZEL) kideen partetik ongi etorria adierazi nahi die, 2024-25 ikasturte berri honetara.

Ikasturtearen helburua: jakintza, balioak, gaitasunak eta ekintzak elkarrekin partekatu eta gizarte langintzako profesional eta pertsona gisa garatzeko aukera.

Dekanotza talde hau zuen esku eta esanetara egongo da ikasturtean zehar, informazioa eman, iradokizunak jaso, problemak konpondu eta beharko liratekeen bestelako gaietarako.

1. FAKULTATEAREN DATUAK

Fakultatea 2015eko urtarrilean sortu zen, Gizarte Langintzako Unibertsitate Eskola eta Lan Harremanen eta Giza Baliabideen Unibertsitate Eskola batu zirelarik.

Fakultatearen egoitza Leioan dago eta gure ikastegia fakultatearen atal bat da.

<https://www.ehu.eus/eu/web/lan-harreman-gizarte-langintza-fakultatea>

2. DEKANOTZA TALDEA

Dekanoa:

Amaia INZA BARTOLOMÉ

Idazkari Akademikoa eta Kalitate Dekanoordea:

Garikoitz OTAZUA GARMENDIA

Egoitzaren Koordinaziorako eta Mugikortasun Dekanoordea:

Javier CERRATO ALLENDE

Ataleko koordinatzailea eta Berdintasun eta Nazioartekotze Dekanoordea:

Ixone FERNÁNDEZ DE LABASTIDA

Antolakuntza Akademikoko Dekanoordea:

Arkaitz FULLAONDO ELORDUI-ZAPATERIETXE

Komunikazio eta Irakaskuntza Berrikuntzako Dekanoordea:

Jesús OLEA OGANDO

Kurrikulumeko Praktika eta Garapenerako Kooperazioko Dekanoordea:

Edurne ARANGUREN VIGO

Prestakuntza Duala eta Borondatezko Praktiken Dekanoordea:

Aitor BASAÑEZ LLANTADA

3. IKASTEGIKO IRAKASLEAK

Ikastegiko irakasleak, irakasten diren irakasgaiak bezala, unibertsitateko sailen ardurapekoak dira:

Sailen kopurua	12
Graduan ari diren irakasleak	54

<https://www.ehu.eus/eu/gizarte-langintzako-gradua/irakasleak>

4. TEKNIKARIAK ETA KUDEAKETAKO ETA ADMINISTRAZIO ETA ZERBITZUETAKO LANGILEAK (TEKAZEL)

Arabako atalean, honako hauek dira TEKAZELko kideak:

Administrazio koordinatzailea	Begoña García
Administraria	Ana Uribesalgo
Atezain nagusia	Javier Otxoa
Atezain nagusia	Ana Suberviola
Ikasleen bulegoa	Alla Evseneva
Administrazio laguntzailea	Nuria González de Lanciego
Ikastegiko teknikaria	Blanca Rescalvo
Administrazio laguntzailea	Ana Cid de Santiago

https://www.ehu.eus/eu/web/lan-harreman-gizarte-langintza-fakultatea/langileak-gasteiz?p_cod_idioma=eu&p_cod_proceso=ldap&p_tipo=centro&p_cod=01c60&p_ordenacion=tipo

5. ZERBITZUAK ETA INSTALAZIOAK

5.1. ZERBITZUAK

Guk erabilgarri ditugu Arabako campusak eskaintzen dituen baliabide eta zerbitzu guztiak: Biblioteka, enplegu gunea, erregistro bulegoak, ikasleentzako argibide zerbitzua, ezgaitasun zerbitzua, berdintasun eta lankidetzarako zuzendaritza, eta prebentzio zerbitzua.

Elurreta eraikinean, bibliotekaz gainera, ikasgela informatikoak ere badituzue.

5.2. IKASTEGIKO EREMUEN ANTOLAKUNTZA

Informatika gela:

- Sotoan dago kokatuta, sarrera librekoa da, irakaskuntzarako erabiltzen ari denean salbu. Honelakoetan ohar bat jartzen da ikasgelako atean.

Rosa Luxemburgo gela:

- Sotoan dago kokatuta.
- Elkartzeko eta lankidetzarako eremua da, horretarako prestatua.
- Mikrouhin labea dago janaria berotu ahal izateko eta bestelako zerbitzuak.
- Erabilera librekoa da eta ikasleek gestionatzen dute.

Oso kontutan izan behar da:

- Instalazioen garbiketa eta mantentzea guztion ardura dela.
- Ezin dela jan eta paperak eta zikinkeria utzi botata inon.
- Ezin dela bota zigarrokinik lurrera, ez eta ikastegiaren inguruetan ere.
- Errespetatu behar ditugula guztion bitartekoak, publikoak direlako, guztionak direlako.

Ataleko gune guztien zerrendatzea, honako helbide honetan kontsultatu ditzakezu:

<https://www.ehu.eus/eu/web/lan-harreman-gizarte-langintza-fakultatea/zerbitzuak-atala>

6. UPV/EHUko GIZARTE LANGINTZAKO GRADUA

Titulazioari buruzko oinarrizko informazioa hemen aurkituko duzu:

<https://www.ehu.eus/eu/gizarte-langintzako-gradua>

*Titulazioaren koordinatzailea Maria José Martín da.

Irakasgaiak koordinatuta daude moduluko koordinatzaileen bidez eta, Ikasturteen artean, titulazioaren koordinatzailearen bidez. Bere aldetik, irakasgai bakoitzak koordinatzailea du esleituta.

Aldian-aldian, bilerak egiten dira lan esparruak partekatzeko eta ikasleen ikaskuntza-irakaskuntza prozesua eta ebaluazioa planifikatzeko.

6.1. IKASKETEN ANTOLAKETA

Gizarte langintza 4 Ikasturtetako titulazioa da, 240 ECTS kreditutakoa.

ECTS europar kredituak irakasgaiak neurtzeko erabiltzen dira. Ikasleen lanorduen kopurua zenbatzen dute. Honetara, ECTS kreditu batek 25 lanorduren balioa du, lana modalitatearen arabera ikasgelakoa edo ikasgelatik kanpoko izan daitekeelarik.

Gizarte Langintzako Graduaren ikasketa plana modulu eta irakasgaien bidez antolatzen da. Modulu bakoitzak eta irakasgai bakoitzak bana arduradun du esleituta koordinaziorako eta webgunean kontsulta dezakezu.

<https://www.ehu.eus/eu/web/lan-harreman-gizarte-langintza-fakultatea/gizarte-langintzako-gradua-koordinazioa>

Honako era honetara banatzen dira irakasgaiak:

Oinarrizko irakasgaiak	Graduko 1 eta 2.a ikasturt.	60 ECTS	Nahitaez egin beharrekoak dira eta beste diziplina batzuei dagokie: soziologia, psikologia, antropologia, zuzenbidea, ekonomia eta zientzia politikoa.
Nahitaezko irakasgaiak	Ikasturte guztiak	120 ECTS	Titulazioari berariaz dagozkionak dira, jakintza arloari dagokion prestakuntza ematen dutenak: gizarte lana, gizarte zerbitzuak eta gizarte politika.
Hautazko irakasgaiak	Graduko 3. eta 4.a ikasturt.	36 ECTS 24 3.ean eta 12 4.ean	Espezialitate edo Minor bat: - "Esku-hartzea eta gatazken eraldatzea" - "Komunitate prebentzioa" Aipamena egiten da espedientean.
Kanpoko praktikak: Practicum	Ikasturte guztiak		Kanpoko praktikak graduko 4. Ikasturtean egiten dira.
Gradu amaierako lana	Graduko 4.a		https://www.ehu.eus/eu/web/lan-harreman-gizarte-langintza-fakultatea/gizarte-langintzako-gradua-gral

6.2. HAUTAZKOTASUNA

Aukera ezberdinak:

1. Hautazko irakasgaiak egin, eskaintzen den minorra kontutan hartu gabe.
2. Eskaintzen den ildo edo minor osoa egin daiteke: 30 ECTS (24, 3.ean eta 6, 4.ean)
 - Beste 6 kredituak:
 - * Egin beste hautazko irakasgai bat.
 - * Euskarazko irakasgai bat egin.

Hautazko kredituak amortizatu ahal dira jarduera espezifikoak egin izanagatik: prestakuntza, kultura, boluntariora, kirola eta ikasleen ordezkaria. Gehienez, 6 ECTS kreditu.

Graduko 3. Ikasturterik aurrera eskatzen dira.

Oso kontutan izan behar da:

Hautazko irakasgaietan plaza kopuru mugatua dago eta matrikulatzerakoan espedientearen batez besteko nota hartzen da aintzat.

6.3. KANPOKO PRAKTIKAK: PRACTICUMA

Nahitaezkoak dira, curriculumaren barrukoak, gure titulazioaren kasuan.

Hiru irakasgai irakasten dira, bana 1., 2. eta 3. Ikasturteetan, ikasleak kanpoko praktikak egiteko prestatuko badira; gizarte errealitatearen, gizarte baliabideen eta profil profesionalaren analisia eginik.

<https://www.ehu.eus/eu/web/lan-harreman-gizarte-langintza-fakultatea/gizarte-langintzako-gradua-praktikak>

Kanpoko praktikak 4. Ikasturtean egiten dira.

Urtekoak dira, urritik apirila bitartekoak.

320 ordu egin behar dira praktiken arloan (32 ECTS), hots:

- Erakunde eta entitate sozialak: udalak, diputazioak, GKEak, elkarteak...
- Arlo ezberdinetan: gizarte ongizatea, prestakuntza, hezkuntza, osasungintza, justizia...

Titulazioko irakasleek eta arloetako profesionalak tutorizatutako praktikak dira.

“Hezkuntza Gainbegiratzea eta Etika Profesionala” irakasgaietan dute sostengu.

Praktika eremuen esleipena:

Graduko 3. Ikasturtean egiten dira.

Arloaren hautaketa espedienteko notaren arabera egingo da.

Honako hauek dira matrikulatzeko baldintzak:

- Hirugarren Ikasturteko "Jardute Profesionalerako Sarrera" irakasgaia gaindituta izatea. Irakasgai hori egin ahal izateko, beste hauek eduki behar dira gaindituta: "Gizarte Errealitateen Behatokia", 1. Ikasturtekoa, eta "Gizarte Baliabideen Behatokia", 2. Ikasturtekoa.
- Gutxien dela, gizarte langintzaren A moduluko 54 ECTS kredituetatik 24 ECTS kreditu gaindituta izan.

A MODULUA	ECTS	IRAKASGAIAK	ECTS	kasturt ea	Lauhil.
GIZARTE LANGINTZA: GIZARTE LANGINTZAREN OINARRIAK, METODOLOGIA, TEORIAK ETA TEKNIKAK	54	Gizarte Langintzaren Oinarriak eta Metodologia	6	1	1
		Gizarte Langintzarako Gizarte eta Komunikazio Trebetasunak	6	1	2
		Esku-hartzeko Teknikak Gizarte Langintzan	6	2	1
		Banakako eta Familiako Gizarte Langintza	6	2	1
		Taldeko Gizarte Langintza	6	2	2
		Komunitaterako Gizarte Langintza	6	3	1
		Gizarte Proiektuen Diseinua eta Ebaluazioa	6	3	2
		Gizarte Ikerketarako Metodologia Kuantitatiboa	6	2	1
		Gizarte Ikerketarako Metodologia Kualitatiboa	6	3	1

6.4. INGELESEZKO IRAKASGAIK EGIN

Titulazioan hiru irakasgai irakasten dira ingelesez: graduko 1go ikasturtean Filosofia eta Gizarte Langintza, 2. Ikasturtean, Gizarte Langintzarako Psikologia eta, 3.ean, Gatazken Eraldaketarako Trebetasunak.

Hautazko moduan ere egin ahal dituzu Arabako campuseko beste titulazioetan ingelesez irakasten diren irakasgaiak, baldin eta gizarte langintzako titulaziorako interesgarri eta osagarri badira.

Informazio gehiago lortu ahal da ikasleen idazkaritzan eta titulazioaren koordinatzailearen bulegoan.

6.5. GRADU AMAIERAKO LANA - GRAL

Gure titulazioan 10 ECTS kreditu dira.

GRALerako arautegia, jarraibideak eta egutegia hemen dituzue:

<https://www.ehu.eus/eu/web/lan-harreman-gizarte-langintza-fakultatea/gizarte-langintzako-gradua-gral>

Izena irailean ematen da (matrikula lana egin eta gero egin behar da).

7. AKADEMIA ANTOLAKUNTZA

Ikasle guztiek oro berrikusi behar dute matrikula eta egiaztatu aurreikusi eta nahi denaren arabera egin izan dela.

Graduko Ikasturte guztietako irakasgaien irakaskuntza gidak hemen dira guztion eskura:

<https://www.ehu.eus/eu/gizarte-langintzako-gradua/kreditu-eta-irakasgaiak>

Bestalde, egutegi akademikoa, ordutegiak, talde praktikoen esleipena eta azterketen egutegia hemen aurkitu ditzakezu:

<https://www.ehu.eus/eu/web/lan-harreman-gizarte-langintza-fakultatea/gizarte-langintzako-gradua-antolakuntza>

Bi deialdi izaten dira irakasgai bakoitzeko ikasturtero.

- Ohiko etsaminak urtarril eta maiatzean izaten dira eta ezohikoak ekain eta uztailean.
- Etsamina partzialak ostiral arratsaldeetan beste inoiz ezin egin daitezke (ikastegiko batzarrak hala onartu baitu).

Ikasturte guztietan goiz bat ikasleen lan autonomoari eta lankidetzari eskaintzen zaio, eskolarik gabe. Zenbaitetan, behar izanez gero, eskolak berreskuratzeko edo bestelako jarduera osagarri batzuk antolatzeke balia daitezke tarte hori.

Eskolen arteko atsedenak 10 minututakoak dira.

Nahitaezko eta oinarrizko kreditu praktikoak lantzeko, bi ikastalde praktiko osatzen dira ikastalde bakoitzeko ikasleekin, baldin eta ikasleen kopurua 50 baino handiagoa bada.

Irakasleen tutoretzako ordutegiak webgunean dira argitaratuta, bai eta GAUR aplikazioan eta irakasleen bulegoetako tauletan ere.

8. IKASLEEN MUGIKORTASUN PROGRAMAK

Programa hauek, oro har, 2. Ikasturtean eskatzen dira, 3. Ikasturtean zehar parte hartzeko.

Lehenengo Ikasturteko notaren arabera sartzten da (ezinbestekoa da 1. Ikasturte osoa gainditu izatea-60 kreditu- ERAMSUS+ eta UPV/EHU-AL eta Beste Norakoak programetarako eta 54 kreditu SICUerako).

Salbuespenez, hirugarren Ikasturtean eskatu eta 4. Ikasturtean parte hartu ahal da.

Programa hauen inguruko informazio zehatzagoa ematen da graduko bigarren Ikasturteko bigarren lauhilekoan.

Honako programa hauetan hartzen dugu parte:

- Sicue (Espainiako unibertsitateak)
- Erasmus (europar unibertsitateak)
- EHU-AL eta Beste Norakoak (Latinoamerikako eta gainerako herrialdeetako unibertsitateak)
- Garapenerako lankidetzak. Programa honek bere baitan hartzen ditu lankidetzan egindako 4. Ikasturteko praktikak (bereziki, Amerika Latinoan)
- Hala nahiko duen ikasleak DERRIGOR egin behar du UPV/EHUk eskainitako prestakuntza Ikasturte bat ikastegian lehenengo lauhilekoan zehar.
- Hirugarren Ikasturteko ikasleentzat da, beste inorentzat ez.
- Informazioa garaian ageriko da, iragarkien taulan.

9. IKASLEAK LANERATZEKO PROGRAMA

Urtero, Ikasturte ezberdinak eskaintzen dira gure ikasleen enplegagarritasuna hobetzeko.

Zehazkiago, graduko laugarren Ikasturteko ikasleei eskaintzen zaie eta Arabako profesionalen kolegioarekin batera eta campuseko enplegu gunearekin batera antolatzen dira.

Enplegu publikoa (LEP) eta pribatua lortzeko informazio zehatza eskaintzen da.

10. ARABAKO ATALAK ESKAINITAKO PRESTAKUNTZA ESKAINTZA

Jardunaldi eta kongresuak eskaintzen dira ikastegian eta Arabako atalak antolatuta:

- Prestakuntza eta elkarretaratze profesionalerako jardunaldia, ikasturteko lehenengo lauhilekoan, laugarren Ikasturteko ikasleak helburu.
- Gizon eta emakumeen berdintasunari buruzko Ikasturtea, bigarren lauhilekoan.
- Arabako profesionalen elkargoak antolatutako jardunaldia.

11. UPV/EHUko DESGAITASUN ZERBITZUA

Desgaitasun eta ezelako disfunczionalitaterik duten pertsonen harremanetan jarri behar dute zerbitzu honekin beren eskubideei buruzko informazioa eta unibertsitateak eskaintzen duten laguntzen ingurukoa jasotzeko.

Ikastegiko arduraduna Amaia Inza Ataleko koordinatzailea da.

12. IKASLEEK FAKULTATEAN PARTE HARTZEKO ORGANOAK

Ordezkaritzan maila ezberdinak izaten dira:

Ikastaldearen ordezkariak	Iraila	
Fakultateko Batzar eta Arabako ataleko batzarreko kideak	Azaroa	
Klaustroko kideak (unibertsitate osorako)	Azaroa	

Erakunde batzordeetako kide (kalitate eta irakaskuntza berrikuntza, euskara, akademia antolakuntza eta abar)	urria	
---	-------	--

Ikastalde bakoitzak bere ordezkaria du:

- Ikastaldearen eztabaida formalak zuzentzen ditu eta bere ordezkaria da gai kolektiboetan, zuzendaritzaren edo, oro har, irakasleen aurrera.
- Aukera askeko kreditu batekin aitortzen da lan hau.

Ikasleen kontseiluak:

- Ikastegi, campus edo unibertsitate mailako ordezkariak koordinatzen ditu.

Batzorde instituzionalak:

- Badira fakultatean eta Arabako atalean.
- Bertako kideak fakultate eta ataleko batzarrean erabakitzen dira, urtero.
- Honako hauek dira batzordeak: euskara, kalitatea eta irakaskuntza berrikuntza, gradu amaierako lana, akademia antolakuntza, diziplina eta elkarbizitza, besteak beste.

Ikastegiak bi ordezkari dauzka:

- Bata, lan harreman eta gizarte lanaren titulaziokoa, eta bestea, gizarte langintzaren titulaziokoa.
- Ikastegiari dagozkion gai orokorrak aztertzen ditu, bai eta irakasle eta TEKAZELkoei buruzkoak ere
- Zubi lana egiten du ikastegiaren eta ikasleen artean, bi aldetaranzko informazioa bideratuz.
- Erabilera askeko kreditu batekin aitortzen da lan hau.
- FAKULTATE eta KLAUSTROrako hauteskundeak batera egin ohi dira, urrian hasi eta azaroan amaitzen den prozesuan.

- Fakultateko idazkaritza akademikoa arduratzen da hortaz, prozesua erraztuz eta informazioa gerturatuz.



13. IKASTEGIAREN BARRUKO KOMUNIKAZIO MEKANISMOAK

Pertsona bakoitza da behar duen informazioa bilatzeko ardura duena, honako bide hauek baliatu ahal dituelarik.

13.1. WEB ORRIA

Bertan aurki daiteke:

- Ordu-tegi, tutoretza, etsamina, antolatutako ekitaldi eta abarreko informazioa.
- Gai akademikoei buruzko ABISUAK: eskola aldaketak, irakasleen bajak eta ordezkapenak eta beste.
- IRAGARKIAK: ekitaldi ezberdinak edo bestelako albiste interesgarriak, ikasketa, ikastegi eta/edo diziplinaren inguruan.

13.2. POSTA ELEKTRONIKORAKO KONTUA

Garrantzitsua da alta egitea, sistema hori baliatzen baitute irakasleek ikasleei informazioa helarazteko.

Unibertsitateak berariaz ematen du kontua matrikularekin batera.

Sistematikoki erabiltzen da, bereziki, Egela baliatzen duten irakasleen kasuan.

Ikasleen posta elektronikoa, posta elektronikoko pertsonalera birbidaltzeko aukera:

<https://www.ehu.es/documents/6902252/7221800/Redireccionar-correo-electronico.pdf/77e856a2-51f4-5ba2-0f84-b01cca60eb26?t=1570542411000>

13.3. IKASTEGIAREN INFORMAZIO TAULAK

Atariko iragarki taula ofiziala: akademiaren arloko abisu ofizialak

Lehenengo solairuko iragarki taula ofiziala: batzar, batzorde eta abarren erabakiak

Rosa Luxemburgo gelaren ondoko iragarki taula.

Idazkaritzaren iragarki taularen ondoko taula: egutegia eta beste.

Irakasleen bulegoen ondoko taulak: tutoretzak

Taulak korridoreetan, ikasgelen ondoan: informazio orokorra, prestakuntza osagarria eta bestelako gaietarako buruz.

Ikasgeletako taulak

Atariko iragarki taulak: ikasleen esku

Bestelako taulak

GARRANTZITSUA da oso kartelak baimendu gabeko tokietan ez jartzea, ate, horma eta abarretan.

13.4. Ikastegiko atarian kokatutako informazio pantaila

13.5. UPV/EHU eta beste erakunde batzuek antolatutako jardueretarako buruzko informazio gunea

14. IRADOKIZUNEN ONTZIA

Anonimoa da.

Ikastegiko atarian, edozeinek erabili ahal du.

15. FOTOKOPIAGAILUA

Ikasleentzako kopiagintza zerbitzua dago.

Makina sotoan dago eta informatika gelarekin konektatuta.

16. SUTEEN PREBENTZIOA

Informazioa tauletan dago: larrialdietarako irteerak, protokoloa eta abar.

Ikasturtean simulakro bat egiten da.

17. BESTE GAI INPORTANTE BATZUK

Ezin erabil daiteke telefono mugikorrik ikastegian.

Eskolak ezin izango dira grabatu irakaslearen baimenik ezean, eta kontutan hartu behar da delitua dela.

Ezin jan daiteke ikasgeletan.